

Mugak zabaltzeko besarkada

Errefuxiatuen aldeko besarkada kolektiboa egingo dute domekan Durangon. Parte hartzera dei egin du Hemendik Harantz elkarte jaio berriak ere. Taldekide diren Libe Mimenza, Libe Arando eta Ane Amesti Grezian egon dira boluntariotza lanean. • 2-3

LEHIOR ELORRIAGA



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



**ENBORRAK
EZPALETAN
ZATITZEKO
GAILUA**



BIRRINGAILUA



AREA



**MAILUEN
MOTOSEGA**

**Espainiako
hauteskundeetan
EAJ izan da
bozkatuena**

Durangaldea | Kongresurako hauteskundeetan EAJk, EH Bilduk eta PSOEek gora egin dute 2016ko emaitzekin alderatuta. Unidas Podemosk eta PPK, ostera, behera egin dute. **4-5**



Arando, Amesti eta Mimenza, Atenasen ateratako argazkian.

“Europak kaiolatan sartutako animaliak bezala tratatzen ditu migratzaileak”

Hiru neska elorriar Greziako Samos irlan egon dira apirilean, errefuxiatuen alde lan boluntarioa egiten

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Lanean jarraitzeko gogoz bueltatu dira Greziatik Libe Arando Azkoga (1986), Ane Amesti Gaiastegi (1988) eta Libe Mimenza Castillo (1988) elorriarrak. Samos irlan egon dira. 5.000 migratzaile ez atzera ez aurrera daude han, Europara heldu arren ateak zarratuta topatu dituztelako. Mugak zabaltzeko eta elkartasuna sustatzeko asmoz jaio den Hemendik Harantz Durangaldea taldeko kide dira hirurak.

Zer sentsazio ekarri duzue Greziako esperientzia boluntariotik?

Libe Arando: Lana egiteko beharri-zana dagoela eta jendea animatu behar dugula. Beharri-zana aurrez aurre ikusi dugu.

Ane Amesti: Esperientzia positibotzat jotzen dut, baina boluntario falta itzela ikusi dugu. Ados nago Libegaz, jendeak beharri-zana dauka. Badago materiala, baina lanerako eskuak falta dira.

Libe Mimenza: Europak kaiolatan sartutako animaliak bezala tratatzen ditu migratzaileak. Duintasunik bako egoeretara kondenatuta dituztela ikusi dugu.

Zergatik diozu kaiolena?

L.M.: Kanpamentuak Acnurrek eraikitako espazio batzuk dira, hesitutakoak. Han sartzen dituzte, baina ez dira eurekin arduratzen: ez diete ematen lo egiteko leku oso bat, ez dutxarik, ez komunik, ez janaririk... Samos irlako gunea 500 pertsonarentzat dago eraikita, eta barruan 1.000 daudela kalkulatzen dugu. Beste 4.000 inguru

oihana deitutako ondoko eremuan daude.

A.A.: *Oihana* deitzen dioten horretan ez dago ezer. Plastiko eta makilekin sortzen dituzte aterpeak, bakoitzak ahal duen moduan.

L.A.: Gobernuz kanpoko erakunde autogestionatuek hornitzen dituzte kanpalekuak.

Zelan eduki zenuten Greziako proiektuaren berri?

A.A.: Hemendik Harantz elkar-tea Arabako Errioxan jaio zen, 2015ean, herri mugimenduen eskutik. Gazte batzuek Greziarako karabana solidario bat egin zuten, eta erantzun ona eduki zuela ikusita, herri askotako jendea inpli-

“

Jendeak beharri-zana dauka. Badago materiala, baina lanerako eskuak falta dira”

—

katzen hasi zen, batez ere arropa bilketan zentratuta. Azaroan kide batek eta nik ezagutu genituen, eta ordutik hartu-emanetan ibili gara. Gure asmoa beste elkar-te batzuekin elkarlana sustatzea da; egin dugun boluntariotza lanerako, Refugee For Refugees elkar-teagaz batu ginen.

L.M.: Grezian Samos irlan egin dugu lan eurekin. Siriar errefuxiatu batek sortu zuen elkar-te bat da. Sirian gidatzen zegoela, bonba

bat jausi zitzaion eta hanka txarto zeukan. Hala ere, 14 kilometroko tartea egin zuen igerian. Bidean lagun bi galdu zituen. Alemaniara ailegatzea lortu zuen, baina gero Lesbosera bueltatu zen, proiektu hau abian jartzera. Batez ere arropa banaketa masibora dedikatzen dira, doako denda irekien bidez. Samosen aurten zabaldu dute denda, eta hara joan gara.

Zelakoa izan da eguneroko lana?

L.A.: Nekeza izan da, behar asko zegoelako, eta egunean 14 orduz ibili gara lanean. Hurrengo egunean etorri beharreko 200 bat andra eta haien seme-alabentzat materiala prestatu, gizonentzat hurrengo asterako tiketen banaketa egin, ume txikientzat paketeak egin...

L.M.: Goizean goiz elkartzen ginen, eta banaketa egin ostean bakoitza bere postura joaten zen. Hizkuntzen arabera eta itzultzaileen laguntzagaz jendeari arreta eman genion, eta bere beharren arabera arropa eskaini... Horrela, bazkalordura arte. Arratsaldean biltegi-etara joaten ginen normalean, gauzak sailkatzen, bilatzen, ordenatzen... Umeekin aktibitateak egin ahal izan ditugu pare bat bider, eta horrek arnasa apur bat eman digu.

Zuentzat, pertsonalki, zer suposat du migratzaileekin egindako lan boluntario horrek?
L.A.: Badaude momentu gogorak. Esaterako, arropa goitik behera behar duen 13 urteko ume bat ikusten duzu, uzkuertuta, zer eskatu ere ez dakiela. Baina indarra dute. Duintasuna merezi dute eta ezin duzu penatuta egon. Berdinak

garela, anai-arrebak garela senti-
tzea lortu behar duzu.

L.M.: Bihotza 38.000 bider erdibitu
zait egunean, eta uste dut denoi
gertatu zaigula. Gehiago izan da
erneguagatik. Gu pribilegiatu
batzuk gara, baina nork diosku ez
zaigula horrelakorik bizitzea ger-
tatuko? Migratzaile izan ginen eta
bihar igual berriro izango gara.

“**Heltzen zirenak beldur
handiagaz zetozen,
eta inondik ere ez
zuten gura Turkiara
bueltatzerik**”

Bestalde, geratu zaidan sentsazioa
da sarritan interbentzioak karita-
te ikuspuntu batetik egiten direla,
eta ez duela ezertarako ere balio.
Hemen politikak behar dira, gau-
zak benetan aldatzea. Argi geratu
behar da ere pertsona horiek ez
direla errefuxiatuak, errefuxiatu
izateko itxaroten daudenak baino.
Gosaltzeko itxaroten dute, dutxa
bat hartzeko, eskola hartzeko, me-
dikuarenera joateko, euren asilo
eskaera tramitatzeko... Itxarote
horrek akabatzen ditu euren itxa-
ropen guztiak.

A.A.: Norbere herrian kontzien-
tiazio lan bat behar dela uste dut,
jendeak gobernuari presio egin
eta politikak aldatzeko. Bestela,
karitatea izango da. Pertsonalki,
esperientziak indar itzela eman
dit, eta hemen lan egiten jarraitze-
ko gogotsu etorri naiz.

**Migratzaileen krisia azaleratu
zenean, ateak zabalik zeudela**

**zirudien. Baina itxaroten daude,
Grezian, Italian...**

L.M.: Europak ateak itxi ditu, eta
lotsagarriak diren kuotak ere
ez ditu betetzen. Beldurraren
politika zabaldu du, eta hor dago
ultraeskuinaren igoera. Mugak
zabalduta gure ongizatea galduko
dugula diote. Baina beherakada
demografikoa izan dugu, eta per-
tsona berriak behar ditugu gure
herrialdeetan. Bestalde, Europak
espoliazioa amaitu behar du erre-
fuxiatuen jatorrizko herrietan.

L.A.: Greziari lagundu beharrean,
Turkia armaz hornitzen dabil
orain Europa, eta salagarria da.
Heltzen zirenak beldur handiagaz
zetozen, eta inondik ere ez zuten
gura Turkiara bueltatzerik.

**Aurrera begira, Lesbosen lanean
dabilen Zaporeak taldeagaz elkar-
lanean janari bilketa hasi duzue.**

A.A.: Maiatzaren 10era bitartean
Elorrioko, Abadiñoko eta Iurre-
tako eskoletan egingo da bilketa.
Hilaren 9an, 10ean eta 11n kalean
ere egongo gara, Elorrioren eta Aba-
diñon. Hazi luzeko arroza, pasta,
diliztak, garbantzuak, babarru-
nak, arrain kontserbak eta olio
batuko ditugu. Gero, Zaporeak tal-
deak Arrigorriagan duen biltegira
eramango dugu, eurek Greziara
garraiatzeko. Bestalde, ekaina-
ren 8an jaialdi bat egingo dugu
Elorrioren. Goizean, Hemendik Ha-
rantzegaz elkarlanean dabilzan
elkartek mahai-inguru batera
gonbidatuko ditugu. Gauean kon-
tzentratuak egongo dira.

L.M.: Hemendik Harantz Duran-
galdea talde sortu berria da, eta
jendea batzera animatzen dugu,
Durangalde osoan sarean lan
egitera.



Greziako Samos irlan egon dira lanean.



Elorriarrak, eurekin batera lanean ibili diren boluntarioetako batzuekin.



Nazioartetik heldutako laguntza antolatzea izan da euren zereginetako bat, Refugee For Refugees elkartearen biltegian.

Besarkada kolektiboaren forma hartuko du etzi Durangon egingo den mobilizazioak

12:00etan Ezkurdin elkartzeko deia egin dute; han zutabetan banatuko dira



Durango Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako zenbait kide, zapatuan, kamisetak saltzen.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

"Herrien, pertsonen eta giza es-
kubideen besarkada" lez aurkeztu
dute. Munduko hainbat lekutan
garatuko da domekako mobili-
zazio berezia, eta Euskal Herrian
Durango izango da erdigune. Ez-
kurdin elkartu, eta 12:00etan mo-
bilizazioari buruzko argipenak
emango dituzte. Zortzi zutabetan
banatu, eta 12:30ean abiatuko
dira Landako Guneraino. Han
besarkada kolektiboaren forma
hartuko du mobilizazioak.

Zortzi zutabeak gaien arabera
sailkatuko dituzte: migratzaileak
eta euren aldeko elkarteak,
feministak, euskara eta kultura,
baserritarrak eta ekologistak,
eskubide sozial eta sindikalak,
pentsiodunak, eta memorialistak.
Durango bonbardaketaren bik-
timak ere ordezkatzeko ditu per-
tsona batek. Zutabeen hasieretan
arloan ordezkariak joango dira,
eta herritarrak atzetik sartuko
dira, gaiari erreparatu barik.

Zutabeetan banatzeko eta
amaieran besarkada bat irudika-
tzeko proposamena egin dutenez,
80 bat boluntario ibiliko dira la-
nean guztia antolatzeko, Duran-
goko Ongi Etorri Errefuxiatuak
taldeko Alaitz Berriozabalgoi-
tiaren esanetan. Pozik agertu da
jendeak emandako erantzunagaz.


**Zutabeen hasieretan
arloan ordezkariak joango
dira, eta herritarrak
atzetik sartuko dira**

"Durangaldeko herri askotatik
etorri dira batzarretara", esan du.

200 taldek baino gehiagok eta
pertsona ezagun askok eman dute
atxikimendua. Adibidez, Joseba
Sarrionandiak, Garbiñe Biurru-
nek, Bernardo Atxagak, Maixabel
Lasak, Kirmen Uribek, Gemma
Zabaletak eta Anjel Lertxundik.

EAJ, EH Bildu eta PSOE gora, Unidas Podemos eta PP behera

VOX alderdi ultraeskuindarrak Durangaldeko 612 herritarren babesa lortu du



Alderdiek eskualdean izan dituzten emaitzak. Kolore indartsuan 2019ko datuak, eta apalean 2016koak.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Espainiako Kongresurako hauteskundeetan partaidetzak gora egin du, eta Durangaldean ere 6,48 puntuko aldea dago 2016ko hauteskundeekin alderatuta. Ultraeskuinaren agerpenaren beldur, ezkertiarrek eta abertzaleak mobilizatu egin dira eta hori botoetan igarri da. EAJk, EH Bilduk eta PSOEk gora egin dute; PPK behera, eta Unidas Podemosek ere nabarmen behera, tendentzia orokorragaz bat.






Durangaldean EAJk irabazi ditu hauteskundeak, 16.631 botogaz, eta kasik herri guztietan lehen indarra izanda. EH Bildu Izurtzan eta Otxandion bakarrik nagusitu da eta Unidas Podemos gainditu du eskualdean. PSOEk Espainiako hauteskundeak irabazi ditu eta zi-

klo negatiboa apurtuta, hamarkada hasierako mailara bueltatu da. Unidas Podemosek 3.600 boto galdu ditu eskualdean, horietako asko jatorrizko alderdietara itzulita.

PPk gainbeheran jarraitzen du; 2000. urtean 7.900 boto zituen eta aurten 2.055. Ciudadanosek 2016ko antzerako emaitzak lortu ditu. VOX alderdi ultraeskuindarrak zelako erantzuna edukiko zuen jakin-mina zegoen, eta 612 herritarren babesa izan du.

Datuak ikusgai

Domekako datu guztiak eta datu historikoak www.anboto.org webgunean daude ikusgai. Gainera, tresnak hauteskundearen arteko konparaketak egiteko aukera eskaintzen du.



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko maiatzaren 3a
17. urtea - 761. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA









KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





GARA

PAPEREZKO EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAK 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertu ez dadin!!!

GARARI laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**

Kili-Kili LGTB elkarte jaio da Durangon, eta bihar egingo dute jendaurreko aurkezpena

LGBTB kolektiboaren eskubideen aldeko tokiko elkarte baten beharra sentitu, eta batzeko pausoa eman dute



Kili-Kili elkarte osatzen duten herritarrek; besteak beste, Iker Urkiza eta Ion Andoni del Amo zinegotziak (EH Bildu).

DURANGO • KAROLINA SUAREZ
Hirietan eta nazio mailan badaude LGTB mugimenduak, euren eskubideen alde lan egiten dutenak. Baina tokiko LGTB elkarte baten hutsunea dagoela sentituta, Kili-Kili kolektiboa sortu dute Durangaldeko zenbait herritarrek. Martitzenean agerraldia egin zuten prentsaren aurrean, eta jendaurreko aurkezpena bihar izango da, 12:00etan, San Agustín kulturgunean.
Iraide Legina elkarte kide zornotzarraren ahotsa, hiritik aparteko tokietan LGTB errealtate

tea ikusezin bihurtzen da askotan: "Durangon egiten diren ekimene-tan kolektiboaren presentzia bermatu gura dugu". Horrela, tokiko aukera sortzeko eta gertutasuna bermatzeko ekingo diote lanari.
Markel Carrillo partaide durangarrak azaldu bezala, Durangon

Durangon "gauzak aldatzeko inizatibatik" sortutako taldea da eurena

LGBTB kolektiboaren eskubideen defentsa eta horren inguruko formakuntza egingo dute

"gauzak aldatzeko inizatibatik" sortutako taldea da eurena. LGTB kolektiboaren eskubideen defentsa egingo dute, eta horren inguruko formakuntzari ekin gura diote batez ere. Adibidez, ikastetxeetan

egin gura dute ekarpena. Durangaldeko herritarrek osatzen dute elkarte, baina lanketa Durangon hasiko dute.

Parte hartzeko deia
Martitzenean San Agustinen egin zuten prentsaurrekoan, Kili-Kili taldean aktiboki parte hartzeko prest daudenei ere zabaldu zieten mezua. Horretarako, eurekin kontaktuan ipintzeko, Instagram edo helbide elektroniko bitartez (*kilikili.asoziazioa@gmail.com*) idazteko deia egin zuten.

Sentikortasun kimikoa dutenentzat egokiak diren garbiketa produktuak probatuko dituzte

DURANGO • MARKEL ONAINDIA
Gai kimikoei sentikorrak diren herritarrentzat egokiak diren garbiketa produktuak probatuko ditu udalak, maiatzean zehar, Bizenta Mogel bibliotekan eta Landako II kiroldegian. Probak ondo joanez gero, mota horretako produktuak erabiltzen dituen erkidegoko eta estatuko lehen udala izango da. SFC-SQM Euskadi-AESEC elkarteak eskatutako neurri bat da, eta Herriaren Eskubideak sustatutako mozio bati esker onartutakoa. Sentsibiltate zentralerako lau gai-xotasun dituen Eva Maria Hazas durangarraren kasuak eman du ezagutzera gaia.

Produktuak probatuko ditu udalak, maiatzean zehar, bibliotekan eta Landako II kiroldegian

"Sentikortasun kimiko anizkoitza duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuagaz" hasiko du egitasmoa udalak. Lurrak, kristalak eta komunak garbitzeko produktuak erabiliko dituzte. E-mailtza onak emanez gero, zerbitzua lehiara aterako du udalak, era iraunkorrean garatu ahal izateko.
Merkatuan ez dago mota horretako produkturik zorua leuntzeko, eta, kasu horretan, garbiketa ohiko produktuekin egiten denean, abisatzea baloratzen dabilta, sentikorrak direnak jakinaren gainean egoteko.

400 lagunetik gora batuko dira Dantzaren Nazioarteko Eguneko ekitaldietan

L'Atelierrek antolatu du jaia, udalaren, Turismo Bulegoaren eta San Agustinen laguntzagaz

DURANGO • MARKEL ONAINDIA
L'Atelier eskolak antolatuta, eta udalak, Turismo Bulegoak eta San Agustinek babestuta, 400 lagunetik gora batuko dira biharko ekitaldietan. Landako Gunean hasiko dira, 10:30ean, umeen tailerrekin. 11:30ean balleta egingo dute, eta 12:30ean, kalejira. Sanagustinalden ballet barra ikusi ahal da, 13:00etan. Plateruenean bazkaldu, eta 16:30ean musikala eskainiko dute. 18:00etan emanaldiak Landako Gunean, eta 20:00etan, demak.



L'Atelierreko ikasleen emanaldiak ikusi ahal izango dira bihar.

Lau lagunekin osatu dute aguazilaren ordezkapenak egiteko lan-poltsa

IZURTZA • J.D.
Hainbat hilabete iraun duen prozesu baten ostean, osatu dute aguazilaren lan-poltsa berria Izurtzako Udalean. Hainbat hautagairi zenbait azterketa egin dizkiete, eta lau lagunek gaitzitu dituzte. Beraz, aurreantzean herriko aguazilak oporrak hartzen ditueneko edo herriko jaietan zein bestelako ekitaldi berezietan laguntzarik behar duenean, lan-poltsa horretara joko du udalak kontratazioak egiteko.

Sagardo Eguna ospatzeko elkartuko dira Garain, maiatzaren 11n

GARAI • M.O.
Azken urteetan hartutako ohi-turari uko egin barik, Sagardo Eguna ospatzeko dute Garain. Maiatzaren 11n izango da, 18:30ean, pilotalekuan. Parte-hartzaileek 5 euro ordaindu beharko dute edalontziarengatik, eta gero, gura beste sagardo edateko aukera edukiko dute. Oitartzungo Okiltxiki baserrian garaitarren laguntzagaz eginko sagardoa egongo da. Gainera, jatekoa ere egongo da, eta DJ Bullek ipiniko du musika.

Platanondoak Ferialekuan mantentzeko aukerari ateak zabaldu dizkio Jose Luis Navarro alkateak

Astlehenean bilduko dira Abadiñoko alkatea eta txosten tekniko berria aurkeztu duen Doctorarbol enpresako ingeniaria



Udaleko hiru alderdiak "ahal dela" platan-arbolak Ferialekuan mantentzearen alde agertu dira.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Doctorarbol enpresako ingeniariak —herriar talde batek kontratatu— aurkezturiko txostenak "dudak" sortu dizkio udal gobernuari. Ferialekuan dauden 46 platanondoetatik 30 bertan utzi daitez-

Ferialekuko 46 platan-arboletatik 30 bertan utzi daitezkeela dio txosten berriak

keela azpimarratzen du bertan. "Hasieratik zuhaitz hauek, ahal zela, bertan uztea zen gure asmoa. Horregatik, ingeniariagaz bilduko naiz, bigarren txosten hau aztertze-ko", adierazi zuen Jose Luis Navarro alkateak apirileko bilkuran. EAJk

ere begi onez ikusi zuen txosten berria aztertzea. Hala ere, EH Bilduk aurkezturiko mozioaren aurka bozkatu zuten biek.

EH Bilduri "tristeia" iruditu zaio "puntu honetara" heldu behar iza-

EH Bilduri "tristeia" iruditzen zaio auzotarrak arduratu behar izatea txosten berria eskatzeaz

tea. "Txosten berri bat egiteaz herriarrek arduratu behar izatea ez zaigu normala iruditzen", adierazi zuen Mikel Urrutia zinegotziak.

Auzotarren mobilizazioak

Ferialekuko platanondoak kendu egingo zituztela zabaldu bezain laster, Zelaietako auzotarrek antolatzeari ekin zioten. Ingeniaria kontratatzeaz gainera udalean txostena aurkezteko, ia 1.300 sinadura aurkeztu zituzten udaletxean platanondoak Ferialekuan mantentzea eskatzeko.

San Prudentzioen azken txanpari ekiteko prest

Domekan amaituko dira Traña-Matienako festak, Donien Atxa kentzeagaz batera; ekimen ugari egongo dira



Iluntze taldeko dantzariak San Prudentzio bezperako ekitaldian.

ABADIÑO • A.M.

Traña-Matienako San Prudentzioak azken txanpan sartuko dira barikuan. Lehenengo aste-buruan eguraldia lagun eduki ostean, bigarren honetarako ere horrela izatea espero da.

Barikuko ekintza nagusietako bat Errota kultur etxeko bertso saioa izango da. Igor Galartzak jarritako gaiei Oihana Iguaranek, Andoni Egañak, Txaber Altubek eta Aitor Bizkarrak abestuko die- te. 22:00etan hasiko da saioa. Bestalde, txosnagunean Alus eta Wimis musika-jartzaileen artean

DJ Dema delakoa egingo dute. Zapatuan Gazte Eguna ospatuko dute Traña-Matienan. 14:30ean emango diote hasiera, txupina-

Zapatuan Gazte Eguna ospatuko dute; egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako

zoagaz eta osteko bazkariagaz. Gauean, La Basu eta The Riff Truckers (Txosnagunean) eta On- da Futura eta Patrulla Canina taldeen kontzertuak egongo dira.



Gure ikasleen ahotan



“Irakasleen inplikazioa azpimarratuko nuke”

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Biomedikoa Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Lehenago beste hainbat gradutan pentsatu izan arren (beste Ingeniaritza batzuk, Biologia, Fisioterapia, Fisika...) Ingeniaritza Biomedikoa aukeratzean argi izan nuen beste guztiak bateratzen zituela. Izan ere, gradua diziplina anitzekoa da eta ingeniartza mundua eta osasun mundua bateratzeko, hainbat ezagutza barneratu behar dira.

Mondragon Unibertsitatea bere gertutasunagatik eta metodologiagatik aukeratu nuen, proiektu bidezko heziketa denez edukiak taxuz barneratzen baitira.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Momentu honetan gradu bukaerako lana egiten nabil, eta orain arteko bidea espero nuena baino laburragoa egin zait. Orokorrean sentazio onak izan ditut eta aipatzekoa da irakasleek adierazten duten inplikazioa. Edozein momentutan dudarik izanez gero, beraingana jo dezakezu hauek argitzeko.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologiak PBL-ak azpimarratuko nituzke. Proiektu hauetan, seihilekoan zehar izandako ikasgaietan jasotako jakintzak praktikan jarrita barneratzen ditugu. PBL-etan gai errealek lantzen dira eta, hauei esker, materiari erabilera praktikoa ikusten zaio. Seihilero proiektu bat jorratzen dugunez, aurreko hiru urteetan zehar sei proiektu egin izan ditugu eta honek eguneroko erritmoa aldatzen lagundu digu.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Badago hobetzeko ezer?

Esan bezala, metodologia eta gertutasuna dira ezaugarriak azpimarragarrienak. Seihileko bakoitzean proiektu bat jorratzen dugunez, hiru urteetan, guztira, sei proiektu egin ditugu eta honek eguneroko erritmoa aldatzen lagundu digu.

Etorkizunari buruz, zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik ez daukat argi zer egingo dudan. Baina, ziur asko, ikasten jarraituko dut, Industria Ingeniaritzako masterra darabilt buruan eta, hori egin ondoren, lan mundurako jauzia egitea espero dut.

GORKA IGARTIBURU INTXAUSTI elorriarra Ingeniaritza Biomedikoa Graduko 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

Elorriarren parte-hartzea bultzatu eta herri galdeketak egiteko araudia onartu dute

2016az geroztik araudia osatzeko lanetan ibili dira Elorrioko Udaleko hiru alderdiak



Herritarren parte-hartzea, informazioa eta gardentasuna normalizatzeko garatu dute araudia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak pauso garrantzitsua eman du herritarren partaidetzara begira. Astelehenean egin zen bilkuran, azken urteetan Elorrioko Udala lantzen ibili den parte-hartze araudia onartu zuten EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin eta EAjren abstentzioagaz. 2016az geroztik udala ordenantza berria lantzen ibili da herri galdeketak egiteko eta herritarren parte-hartzea eta gardentasuna bultzatzeko, eta dagoeneko eman dute lehenengo pausoa. "Gure gobernu planeko 100 neurrien artean, parte-hartze eta herri galdeketa araudi bat gura

genuen, eta lan asko egin ostean, badaukagu geurea", adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Araudi honen bitartez, herritarren parte-hartze zuzena bultzatu du udalak, eta herri galdeketak egiterako orduan tresna hau eskura izango dute elorriarrek. Herritarren parte-hartzea bultzatzeaz gain, informazioa eta gardentasu-

Alderdi guztiekin elkarlanean burutu duten proiektua izan dela jakinarazi du alkateak

na normalizatzeko tresna ere bada-la jakinarazi du Elorrioko Udalak.

Hiru alderdiak elkarlanean

2016az geroztik lantzen dabil-tzan eta aste honetan onartu berri duten araudia alderdi guztiekin elkarlanean burutu dutela jakitera eman du Buruagak. "Alderdi guztien artean aberastu dugun tresna da. Esango nuke legegintzaldi honetan benetan elkarlanean burutu dugun proiektu bakarrenetarikoa izan dela. Beraz, alde horretatik, pozik gaude", jarraitu du alkateak. Gainera, herritarren "onunarako" izango den tresna bat dela azpimarratu du Buruagak.

Garbiketa zerbitzuko langileak greba mugagabeen Elorrion

Greba ez dela arazoa konpontzeko "irtenbiderik zentzuzkoena" esan, eta berriro negoziatzeko nahia azaldu du udalak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko eraikin publikoetako garbiketa zerbitzuko langileak greba mugagabeen daude astelehenaz geroztik. ELA sindikatuak jakitera eman duenez, azken urteetan langileek jasandako murrizketak amaitzea, langileen lan karga murriztea eta kale garbitzaileekiko soldata arrakalari amaiera ematea eskatzen dute.

Bestalde, Elorrioko Udalak esan du greba mugagabea egitea ez dela "irtenbiderik zentzuzkoena" arazoa konpontzeko, eta langileekin negoziatzeko nahia azaldu du berriro. Udalak oharrean jakitera eman duenez, ELA sindikatuko ordezkariekin bildu ziren lan gatazkari irtenbide bat emateko asmoz. Soldatetan %50 baino gehiagoko

igoera eskatu zuen sindikatuak bileran, eta udalak bere borondatea erakutsi zion sindikatuari. Hala ere, udalak jakinarazi du Eulen enpresagaz duten kontratua laster amaituko dela eta kontratua sei hilabetez luzatzea proposatu ziotela sindikatuari. "Eskaintza honen aurrean, ELAren erantzuna greba mugagabea izan da", esan dute udalekoek.

Gerora, ELAk ohar bidez salatu du udalaren partetik ez dela "inongo negoziatziorik" egon.

Zaldibarren zerbitzu ona

Bestalde, Zaldibarko Udalak garbiketa zerbitzuko langileentzat onartu dituen pleguak modu positiboan baloratu ditu sindikatuak, langileen soldata %10 igo baitute.



Elorrioko eraikin, eskola eta lokal publikoetako garbiketa zerbitzuko langileak greban daude.

Udaletxe aurrean dagoen arbolaren ingurua konponduko dute Apatan

Plazatik Ziarreta auzora doan bidea oinezkoentzat seguruagoa izan dadin, herrigunea zeharkatzen duen Axpe eta Arrazolarakoa bidea desbideratuko dute, bihurtune bat ipinita

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kale Irekiak prozesua egin zutenenik, Apatako plaza eta bere inguruak atontzen dabilta. Lehenengo, Euskal Herria kalea oinezkoentzat jarri zuten, eta orain plaza eraberritzen dabilta.

Uda inguruan, plazako beste aldea egokitzeko lanak eta udaletxe aurreko arbola ingurua atontze-koak egingo dituzte. David Cobos alkateak jakitera eman duenez, plazatik Ziarreta auzorako oinezkoen bidea seguruagoa izan dadin, errepidea desbideratuko dute, bihurtune txiki bat ipinita. Horrez gain, Etxetxiki baserriaren ondolik 20 metroko espaloia jarriko dute. Lanak egiteko, 20.000 euro jarriko dituzte.



Lorategi eta jarleku berriak jarriko dituzte arbolaren inguruan.

405.000 euroko kreditu aldaketak polemika piztu du Berrizen

Gobernu taldeak proposatutako kreditu aldaketekin hainbat lan egin gura dituzte datozen hilabeteetan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehenean egindako osoko bilkuran, gobernu taldeak kreditu aldaketa biren berri eman zuen. Alde batetik, 2019ko aurrekontuan 214.700 euro txertatu zituzten, eta bestetik, 191.225 euro. Aldaketa bi hauen bitartez, datozen aste eta hilabeteetan hainbat proiektu gauzatzea proposatu zuen EAj alderdiak. Besteak beste, Matzagabarrena eta Abeletzeko argiteria hobetuko dute, Dukiena inguruko auzobidea konponduko dute eta ETSgaz hitzarmena lotuko dute Arkaraz kale ingurua berrurbanizatzeko.

EH Bilduko kideak, oster, kritikotik agertu ziren kreditu aldaketekin. "Orain hau diru publikoagaz egitea kanpaina egitea da", adierazi zuen Karmen Amezua EH

Bilduko bozeramaileak. Gainera, "porlanean inbertitzeko", kooperaziotik, udalekueetatik zein menpekotasunetik "kendu" dela esan zuen alderdi abertzaleko kideak.

2011ko apirilean EAjren eta Bilduren botoei esker 900.000 eu-

EH Bilduko kideak kritiko agertu ziren gobernu taldeak proposatutako kreditu aldaketekin

ro txertatu zirela argudiatu zion Orlan Isoird alkateak Amezuari. Garai hartan aldaketa egitea den erabakia izan zela erantzun zion Amezuak, eta oraingoa "inposaketa" izan dela.

Euskal Herriko bost ekoizle batuko ditu Mañariko Garagardo Azokak

Ekainaren 1ean egingo den azokaren harira, askotariko ekimenak prestatu dituzte; doako autobusak egongo dira Mañarira joateko zein itzultzeko



Ezkerretik hasita: Endika Jaio alkatea, Ainara Obxotorena haurreskolako hezitzaile eta koordinatzailea, eta Ekaitz Alberdi Garai Brewing Company-ko kidea.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Garagardo Azokak hirugarren aldia egingo du ekainaren 1ean. Aurtan, Garai Brewing Companygaz eta Mañariko Udalgaz batera, herriko haurreskola ere antolatzaileen artean dago, bere 10. urteurrena betetzen delako. Egitarau zabala izango da eta hainbat ekintza antolatu dituzte haurreskolatik. Besteak beste, magia ikuskizun bat eta elektrotzaranga.

Mañariko haurreskola ere antolatzaileen artean dago aurtan; 10 urte bete dira sortu zenetik

Azokak bost ekoizleren garagardoa dastatzeko aukera eskainiko du: Garai Brewing Company, Baobeer (Elgeta), Saltus Garagardoa (Murgia), Mitika Garagardoa (Iruñea) eta BorBor Brewery (Deba).

Aurtengo nobedadeen artean, taloen inguruko show bat eskainiko du Eko Talo-k. Mikrofonoa eskuan, osagai bereziekin betetako taloak prestatuko dituzte zuzenean.

Zuzeneko akustikoak eta taloen inguruko ikuskizuna dira azokako beste osagai batzuk

Musika bataila deitu dutena da beste berezitasun bat. Eskualdeko hainbat taldek 20 bat minutuko saio akustikoak eskainiko dituzte eta onenentzat sariak egongo dira.

Bestalde, Mañarian bertan egindako garagardoa dastatzeko aukera izango da eguneko bazkarian. Asteburu honetarako, ikastaro bat antolatu dute garagardoa egiten ikasteko, eta ikastaroan bertan ekoiztutako garagardoa eskainiko dute.

Autobusak dohainik

Urtero legeaz, doako autobusak egongo dira Mañarira joateko zein handik itzultzeko. Durangon Madalenako geralekutik irten-go dira, 18:00etan, 20:00etan, 21:00etan eta 22:45ean. Mañaritik 22:30ean, 23:20an, 01:00etan, 02:00etan eta 03:00etan abiatuko dira Durangorantza.

Nafarroa Zentroan adinekoen gunea lekualdatuko dute, argitasun gehiago lortzeko

Laugarren faseko eraberritze lanen ondorio bat da; horregaz batera, Gizarte Ekintza Saileko arreta gunea sarbide nagusiaren aurrez aurre ipiniko dute, bulegoak barrualderantza utzita

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Nafarroa Zentroa eraberritzeko laugarren fasea abuztuan hasiko dute, 568.000 euroko inbertsioagaz. Lehenengo solairuaren iparraldeko partea osorik eraberrituko dute; hau da, Gizarte Ekintza Saila eta mendekotasun gradu baxua duten adinekoen zentroa, udalak ohar batean zehaztu duenez.

Nagusien zentro hori fatxada-rantza gerturatuko dute, argi na-

turala aprobetxatzeko. Gizarte Ekintza Sailak herritarrei arreta emateko duen gunea sarbide nagusiaren aurrez aurre geldituko da eta gainontzeko bulegoak barrurantz geldituko dira.

Udalak iragarri duenez, lanak abuztuan hasiko dira eta 568.000 euroko aurrekontua izango dute

Atondo nagusian komun bi jarriko dituzte, bat egokituta. Sarbide berri bi zabaldu beharko dira erdiko espaziotik, adinekoen jardueretarako eta atsedeen gelarako.

Gainera, egungo argi-zuloak kenduko dituzte eta zentroaren beharrianetarako egokia den argiztapen sistema bat jarriko dute. Halaber, irteerako teilatua guztiz eraberrituko dute, orain dauden maldak berriztuta.



Orain arte bigarren solairua eta lehen solairuko hegoaldea osorik eraberritu dituzte.

www.korrika.eus

21. **æk** korrika

Eskerrik asko **KORRIKA**n parte hartu duzuen eragile guztioi!!

Durangaldeko **æk** **Klika**

CERAMICAS

MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

MACOBER

Chimeneas

Cerámicas MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Lanbide eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa Iurretatik Durangora lekualdatuko dituzte

Langileek begi onez ikusi dute lekualdaketa, eta "langileentzat ez ezik zerbitzuaren erabiltzaileentzat ere abantaila asko" ekarriko dituela uste dute. Lanbidetik azaldu dutenez, azaroan lanak hastea aurreikusi du Eusko Jaurlaritzak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bai Lanbide, bai Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa Iurretatik Durangora eramango dituzte urtebete barru. Eusko Jaurlaritzak lau lokal erosi ditu Alluitz kalean, bata bestearen aldamenean. Guztira, ia 700 metro koadro batzen dituzte loka- lok, eta zerbitzu biak egokituko dituzte bertan. Gobernu Kontseiluak joan zen urrian eman zuen ontzat 900.000 euroko inbertsioa

la 700 metro batzen dituzten lau lokal erosi ditu Eusko Jaurlaritzak Alluitz kalean

eskatu duen erosketa. Lanbideko ordezkariak azaldu dutenez, lanak azaroan hasiko dira eta urtebete iraungo dute.

Langileek begi onez ikusi dute lekualdaketa, Lanbideko ordezkari batek azaldu duenez. "Urte asko

dira pilatuta lan egiten dugula. Lekurik barik eta askotan errazak ez diren gaiez jardun behar dugu".

Iurretako Zubiaurre kalean daude enplegu zerbitzu biak. Guztira, 34 langile daude eta egunean 400

bat pertsona igarotzen dira bertatik. Lanbideko ordezkariaren esanetan, abantaila asko ekarriko ditu lekualdaketa, "bertako langileentzat eta zerbitzuen erabiltzaileentzat".

Durangon, langileek espazio eta baliabide gehiago izango dituzte zerbitzu biak eskaintzeko, eta herriarrentzat eskuragarriago egongo dira, Lanbideko ordezkariak azaldu duenez.



Durangoko Alluitz kaleko 9 eta 11 zenbakiek hartuko dituzte Lanbide eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Maiatzean, Olazarko gunean zazpi ur txorota jartzeko obrak hasiko dituzte

ZALDIBAR • A.M.

Maiatzean zehar zazpi ur txorota jarriko dituzte Olazarko gunean. 30 metro koadroko zabaleran ipiniko dituzte txorota hauek. Guztira, 38.750 euroko

la 38.500 euroko inbertsioa egingo da 30 metro koadroko zabaleran

inbertsioa egingo du Zaldibarko Udalak. Eneritz Azpitarte alkaterearen berbetan, 2019ko aurrekontuetan jasotako proposamena da honakoa, eta lagungarria izango da umeen eta helduen aisialdirako.

Hasi da seme-alabekin zelan jokatu irakasten duen ikastarorako izen-ematea

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Sarritan ez da erraza jakitea seme-alabekin ondo jokatu den edo aholku egokiak eman zaizkien, ezta euren emozioak kudeatzeko ere. Ildo horretatik, gurasoak hainbat gaitasunez

Maiatzaren 10era arte eman daiteke izena, udaletxean edo Mallabiko eskolan

hornitzea helburu duen ikastaroa antolatu du udalak. Izen-ematea maiatzaren 10ean amaituko da eta udaletxean zein Mallabiko eskolan egin daiteke. Klaseak maiatzaren 17an eta 24an izango dira, arratsaldean.

Udalak oniritzia eman dio herritar batzordea sortzeari belardiak zaintzeko

Herritarrek proposatutako neurriari oniritzia eman diote eta Baso Plan berrira batuko dute

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Datozen urteetako Baso Plana diseinatzeko ari dira Otxandion. Prozesu parte-hartzaile baten bidez jasotako herritarren ekarpenak ere batuko ditu plan berriak. Maiatzaren 7an 18:00etan udaletxean egingo den azken batzar irekian emango dute euren berri.

Joan zen asteko udalbatzarrean herritarren hainbat ekarpeni oniritzia eman zieten aho batez. Herriko belardiak zaintzeko, boluntario



Otxandioko ikuspegi orokorra.

batzorde bat sortzea da ekarpenetako bat. Zenbait arlotako pertsonen osatuta egongo litzateke eta belardietara aldiro joango lirateke, nola dauden ikusteko. Kalteak ikusiz gero, udaleko ordezkariak informatuko lituzkete. Baso Planeko beste arlo batzuk ere landuko lituzkete: baso mozketen jarraipena eta abar.

Batzordeaz gainera, Baso Plana kudeatzeko enpresa bat kontratatzearen komenigarritasuna ere aipatu zuten udalbatzarrean.

Zenbait arlotako pertsonen osatuta egongo litzateke batzordea, eta udala informatuko luke

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Anboto
Komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian



Ricardo Doliwa

Hareek denporak!

Urkiolan zehar oinez zetozen emakume saltzaileak

Gure aitag amari, gona gorria ekarri edo Aite yoa da bituriera, ama lepoan hartute zioten kantu zaharrek. Baina baziren hara eta hona ibiltzen ziren emakumeak ere, errekaduak egiten zein salgaiak garraiatzen. Sarritan itzalpean geratutako lan hori argitara dakar Ricardo Doliwaren aragazki honek. Jose Mari Uriarte historialariaren esanetan, 50eko hamarkadako izan daiteke. Emakume batzuk

garraioan agertzen dira, Urkiolan, astoak lagun dituztela, baserriko produktuak saltzeko helburuagaz. Durangora bidean doaz, oinez, auskalo zein lekutan irtenda.

Mendeetan zehar leku esanguratsua izan zen Urkiola arraiaren eta ardoaren ibilbidean. Elikagaien garraibide ez ezik, merkataritzaren banaketarako eta gizarte harremanetarako bidea ere izan zen. **M.O.**

Durungaldea asteen

‘Erradikalak Gara’ ikuskizunak hasiko ditu Berbaroren udaberriko jarduerak

Durango I Berbaro elkartearen 30. urteurrenaren harira, hainbat jarduera antolatu dituzte Durangon. Maiatzaren 12an, esaterako, 'Erradikalak Gara' ikuskizuna egongo da Plateruena kafe antzokian. Hurrengo egunean, maiatzak 13, Txoborro Magoa egongo da, familiei zuzenduta. Jarduera hori ere Plateruenean izango da, 17:00etan. Bestalde, ekainaren 1ean egun osoko jai bategaz urteurren jaia ospatuko dutela azaldu dute Berbaroko kideek.

Etxean aurrezteko gomendioak emango dituzte, martitzenean, Nagusien Zentroan

Durango I Durangaldeko Bizidun nagusien elkarteak antolatuta, maiatzaren 7an ikastaro bat emango dute, 18:15ean, Nagusien Zentroan. Besteak beste, argiaren, gasaren eta telefonoaren inguruan berba egingo dute. Aholkulariak Kontsumobideko kideak izango direla jakitera eman dute antolatzaileek.

Erditu berri diren emakumeentzat ikastaroa antolatu dute Berrizen

Berriz I Ama izan berri diren emakumeentzat ikastaroa antolatu du Berrizko Berdintasun Sailak. Eguaztenero izango da ikastaroa, 10:30etik 12:00etara, Berrizko Osasun Zentroan. Parte hartu gura dutenek hiru aukera dituzte izena emateko: info@comosermadre.com helbidera mezua bidalita, www.comosermadre.com webgunean alta emanda edo 660 799 431 telefono zenbakira deituta.

Iritzia

Kaixo, Durungaldea!

2018-2019 ikasturtean, denbora librean hezten duen Inurri Eskaut Taldeak bere XXXV. urteurrena ospatzen du. Heziketa ez formalean, herriko txiki eta gazteekin denbora librean aritutako urte ederrak izan dira.

Inurri 80ko hamarkadan sortu zen, Durangoko San Jose jesuitetan. Urte horietan Durangaldean beste hainbat elkarte sortu ziren, eta haien sorreratik aurrera Durangoko zenbait ekintzetan elkarrekin aritu gara. Hala nola Gabon Kantetan, Olentzeroren etorreran, Munduko Arrozetan, San Faustoko jaietan, antolatutako jolas eta tailerretan...

Jende askok parte hartzen du Inurri Eskaut Taldean, eta 35 urte hauetan Durangoko pertsona asko pasatu dira bertatik. Durangaldearentzat giza eta kristau etorkizunerako inbertsiorik handiena izaten jarraituko du zalantzarik gabe.

Inurri Eskaut Taldean parte hartzen duten pertsona guztiak boluntarioak dira, eta horrek boluntariotzaren eta elkarte guztiekin batera lan egitearen aldeko apustua egitera eramaten gaitu.

Pertsonekin eta pertsonentzat lan egiten dugu. Inurrin, hainbat aspektu lantzen dira: integrazioa, koedukazioa, biolentzia eza, berdintasuna, interkulturalitatea, Jesusen irudia, natura, gure herria (Durango), Euskal Herria, mundu hobe bat sortzearen ideiak...

Honengatik eta beste gauza askogatik gogoz beteta itxarongo zaitugu, Andra Maria elizan maiatzaren 4a egun ahaztezina izan dadin.

Animatu zaituzte!

“Utzi mundua aurkitu duzun baino egoera hobean”.

Beti prest!

Iñigo Arizmendiarrrieta Marina (Inurri Eskaut Taldea).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9.- IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ai arizmendi
ikastola **PRO**

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

Zure Lanerako Bidea

Ate irekiak

maiatzak 7 FERIXALEKUAN 18:00

→ Kirola

Gizarte eta kirol animazioko
eta irakaskuntzarako
goi mailako teknikaria

→ Erizaintzako

zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun
larrialdia

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbideheziketa@arizmendi.eus

www.arizmendipro.eus



www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen
erantzunekin batera beste
hainbat jolas aurkituko dituzu.

PAREAK BAI!

Arriskutsuak ala onuragarriak izan, benetan xelebreak dira mikrobio guztiak. Forma harrigarri eta bitxiak erakusten dituzte.

Ondoko irudian aurkitu bikoterik osatzen ez duen 'xomorrotxo'.



Ondoko lauki honetan, marraztu eta margotu bakterio zintzo bat.

Eta beste lauki honetan, birus gaizto bat.



- Irudi honetan ikusiko dituzun hainbat elementu ez genituzke mendian inoiz aurkitu beharko. Bederatziz dira guztira. Zeintzuk dira ?
- Animalia hauek artetik zeintzuk agertzen dira eskuineko irudi handian?




- Bestalde, bada beste animalia bat paisaian, goiko koadroan jasota ez daqoena. Zein da?



Arrotza

Hemen bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena, zein da?



FunWeeks by Kids&Us®
school of english



Ingelesezko Hiri-kanpamentuak 3-10 urte bitartekoentzat





Askatasunaz

IRAKURRALDI GIROTUA
DURANGO :: Maiatzak 10

Askatasuna ardatz hartuta, literatura maratoia Plateruenean

Askatasuna gai moduan hartuta, zazpi orduko irakurraldi girotua egingo dute maiatzaren 10ean, Plateruena antzokian. Hitzez eta Ahotsez egitasmoaren eskutik antolatutako literatura maratoian parte hartuko dutenek euren testuak edo besteenak irakurriko dituzte, beti ere, askatasuna ardatz badute. Irakurraldia 17:00etan hasiko da.

Maiatzaren 3an

ABADIÑO

Sanprudentzioak

Txiki merienda, 16:45ean, Merkatu plazan. Ostein, **'Eskobien atzetik'** familia ikuskizuna (Barré Compañía), 17:15.

Disko festa: Xaibor, 18:30ean, Merkatu plazan. **Parrilada**, 21:00etan, Traña plazan.

Bertso saioa: Oihana Iguaran, Andoni Egaña, Txaber Altube eta Aitor Bizkarra. Gai jartzailea, **Igor Galarza**. Errota kultur etxean, 22:00etan.

DJ Alus vs DJ Wimis, 22:30ean, Traña plazan.

Karaoke, Txosna Batzordeak antolatuta.

ABADIÑO zineforuma

'Genero auzoa klase ikuspegitik' jardunaldiak: **'Una segunda madre'** filma, 17:30ean, Gaztetxean. Otxandioko, Abadiñoko, Berrizko eta Elorrioko gaztetxeek antolatuta.

ABADIÑO izena ematea

Abañoko Gaztiek: murala margotzeko

izena emateko azken eguna. Katalamixonek antolatuta. Murala margotzea, 17:00etatik 21:00etara, maiatzaren 10ean, Matienako Pino plazan. 2005-2008 urteen artean jaiotakoentzat. Izena emateko: katalamixon@gmail.com/gazteria@abadino.org/654 789 709.

BERRIZ izena ematea

Arabako Errioxako ardoa, Txakolina eta Idiazabal J.D. gazta dastaketarako izena emateko azken eguna. Kultur Etxean: kultura@berriz.eus/94 682 78 60. Dastaketa maiatzaren 7an.

BERRIZ irakurtaldia

Irakurraldi dramatizatuak: 'Euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan', 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO musika

Jam Session: Ertzetik Jazz Band, 21:30ean, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO dastaketa

Garai BrewingCo-ren garagardo berrien aurkezpena eta dastaketa, 19:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Dastatzea eta maridajea, 19:30ean.

DURANGO solasaldia

Literatura solasaldia: Miren Gorrotxategiren '33 ezkil' liburua hizpide, 18:00etan. Andraguneko irakurle taldean.

Maiatzaren 4an

ABADIÑO

Sanprudentzioak

Paella txapelketa, goizean, Merkatu plazan.

Mahai-ingurua: Errefuxiatuak, 12:00etan, Traña plazan.

Iluntze dantza taldea, 12:30ean.

Txupinazoa eta herri bazkaria, 14:30ean, Traña plazan.

Ugasixo txapelketa, 16:00etan, Merkatu plazan.

Kontzertua: Mariachi Azteca de Flor

Fernandez, 17:00etan, Merkatu plazan.

Gazte Eguneako jokoak, 17:00etan, Traña plazan.

Tortilla txapelketan izena ematea, 17:30ean, Merkatu plazan.

Kalejira ElektroTxufla taldeagaz, 19:00etan, Txosna Batzordeak antolatuta.

Kontzertua: La Basu, 22:30ean, Traña plazan.

Gero **Play Back lehiaketa eta The Riff Truckers taldea**.

Jaialdia: Patrulla Canina eta Onda Futura, 23:00etan, Trañabarren etorbidean.

BERRIZ antzerkia

'Comunicado de muerte' (Banarte), 20:00etan, Kultur Etxean.



'Vitoria, 3 de marzo'

ZINEMA

DURANGALDEA :: Maiatzak 3

Gaur helduko da Durango eta Zornotzako zinema-aretoetara *Vitoria, 3 de marzo*. 1976an polizia espainiarrak Gasteizen egindako sarraskia dakar gogora filmak, eta produktore exekutiboetako bat Asier Bilbao durangarra da.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Santos Okinaren margolanak

Napost tabernan ikusgai

MARGOLARITZA • Santos Okina durangarraren azken lanek osaturiko bilduma ikusgai egongo da Durangoko Napost tabernan, maiatza amaitu bitartean. Olio pinturagaz landutako dozena bat lanek osatzen dute bilduma. Bodegoiak eta paisaiak ikusten dira lanetan.



Se busca.
Una odisea en el espacio y el tiempo

Tabula Rasa

maiatzak 4 larunbata 20:00
maiatzak 5 igandea 19:00

San Agustín
KULTUR
GUNEa
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

DURANGO dantza
Dantzaren Nazioarteko Eguna: umeentzako tailerrak: zirkua, dantza, maskara eta makillajea, 10:30ean, Landako Gunean. **L'Atelier balleta,** 11:30ean.
Dantzarien kalejira San Agustinen, 12:30ean.
Ballet barra L'Atelier-eko ikasleen eta laguntzaileen eskutik, 13:00ean, Sanagustinalden (eguraldi txarragaz Landakon).
Bazkaria, 14:30ean, Plateruena kafe antzokian.
‘Musikala’, 16:30ean, L'Atelier balleten eskutik.
L'Atelier-eko dantza taldeen emanaldiak, 18:00etan.
Estiloen norgehiagoka Dj-ekin: break, funky, jazz, ballet..., 20:00etan, Landako Gunean.

DURANGO jaia
Inurri eskaut taldearen XXXV. urteurrena: **Ospakizuna,** 11:00etan, Andra Marian.
Puzgarri eta tailerrak, 12:00etan, herritar guztientzat zabalik.
Zumba, 12:30ean.
Herri bazkaria, 14:30ean.
Ikuskizuna, 16:30ean.
Erromeria Gaur Argi taldeagaz, 18:00etan.
Zozketa, 19:15ean.

DURANGO musika
Joseba Irazoki eta lagunak, 22:30ean, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO antzerkia
‘Se busca. Una odisea en el espacio y el tiempo’ (Tabula Rasa), 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

GARAI bisita
Garai-Lantziego senidetza bisita.
Ongietorria, 11:00etan.
Bazkaria, 14:30ean, pilotalekuan.
DJ Mar.Isk.Ai.Dejai, bazkalostean.

IURRETA musika
Auzorik Auzo: Gontzal Mendibil, 18:00etan, San Andres auzoan. Gero luntxa bertaratzen direnentzat.

Maiatzaren 5ean

ABADIÑO deialdia
Hegaztien inguruko herritar zientzia ekintza. Urkiolako Parke Naturalak antolatuta. Informazioa: 94 681 41 55/urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus

ABADIÑO Sanprudentzioak
Done Zezili abesbatza + The Golden Binder, 13:00ean, Errota kultur etxean.
Perretxiko pintxoan dastaketa, 13:00ean, Pinoko plazan.
Jubilatuen bazkaria, 14:00etan.
Jaialdia: Belle&Blue, 17:00etan, Traña plazan.
Donien Atxa kentzea, 20:00etan.

DURANGO musika
Dr Moranx, 13:00ean, Intxaurren. Domekak Musikaz.

DURANGO antzerkia
‘Se busca. Una odisea en el espacio y el tiempo’ (Tabula Rasa), 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO musika
‘Satorjator’ (Ene Kantak), 12:30ean eta 16:30ean, Arriola antzokian.

MAÑARIA ikastaroa
Garagardo elaborazio tailerra, 09:00etatik 14:00etara, Herriko plazan. Mokadutxoa eta garagardo dastatzea, 11:00etan.

Maiatzaren 7an

DURANGO tailerra
‘Haurrak, poesia eta gu’, 18:00etatik 20:00etara, maiatzaren 7an eta 21ean, Bizenta Mogel bibliotekan. Yolanda Arrieta Malaxetxebarriak gidatuta.

Maiatzaren 8an

DURANGO hitzaldia
‘Era seguruan gidatzeko gaurkotu zaitez, araudian aldaketak’, 18:00etan, Pinondo Etxean. Pertsona Nagusientzako Mugikortasun Segururako Kanpainaren barruan.

DURANGO hitzaldia
‘El cuento de la subrogada. Vientres de alquiler’ hitzaldia, 19:00etan, Durangoko Andragunean. Hizlaria: Irantzu Varela.

ELORRIO dokumentala
Hileko dokumentala: ‘Time trial’, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

Gontzal Mendibilek kontzertua eskainiko du maiatzaren 4an, 18:00etan, lurretako San Andres auzoan.

Maiatzaren 9an

ABADIÑO ikastaroa
Emakumeentzako Jabekuntza Eskola: ‘Jendaurrean hitz egin’, 17:30etik 20:00etara, eguenero, ekainaren 27ra artean. Txanporta kultur etxean, Idoia Eizmendik gidatuta. Izena emateko: berdintasuna@abadiano.org

DURANGO inaugurazioa
‘Geometriak eta Fikzioak’ (Daniel Txopitea) erakusketaren inaugurazioa, 19:00etan, Arte eta Historia Museon.

Maiatzaren 9tik 11ra

DURANGALDEA deialdia
Errefuxiatuei laguntza humanitarioa bidaltzeko janari bilketa. Elorrión, plazan. Abadiñon, Txanporta plazan eta Matienako Atsegin eta Oxford tabernen artean. Astegunetan, 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuan, 11:30etik 13:00era.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA
• **Soinujolearen semea**
barikua 3: 22:00
domeka 5: 19:00

:: Durango ZUGAZA
• **Vengadores. Endgame**
barikua 3: 21:00
zapatua 4: 17:30/21:30
domeka 5: 16:30/20:30
astelehena 6: 19:00
martitzena 7: 20:00
eguzatena 8: 20:00
• **Vitoria, 3 de marzo**
barikua 3: 19:30/22:00
zapatua 4: 18:00/20:15//22:30
domeka 5: 17:00/19:15/21:30
astelehena 6: 18:30/21:00
martitzena 7: 20:00
eguzatena 8: 20:00
• **Keepers. El misterio del faro**
barikua 3: 19:30/22:00
zapatua 4: 18:00/20:15/22:30
domeka 5: 17:00/19:15//21:30
astelehena 6: 18:30/21:00
martitzena 7: 20:00
eguzatena 8: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA
• **Soinujolearen semea**
zapatua 4: 22:00
domeka 5: 20:00
astelehena 6: 20:00

:: Zornotza ARETOA
• **Vitoria, 3 de marzo**
barikua 3: 20:15
zapatua 4: 19:30/22:00
domeka 5: 20:00
astelehena 6: 20:15
• **Mía y el león blanco**
zapatua 4: 17:00
domeka 5: 17:00

“Esango nuke Virginia Woolfen barne bakarrizketek eragina dutela nire idatzietan”

Neska gazte baten bizipenak kontatzen ditu Leire Vargasen 'Kresal Haizea' narrazioak; Azkue Sarietan saritu dute



**Leire
Vargas Nieto**

Ikaslea
Durango | 2002

LITERATURA • KAROLINA SUAREZ
'Kresal Haizea' lanagatik narrazioen alorreko bigarren saria jaso du Leire Vargas durangarrak, 14-17 urte bitarteko gazteen mailan. 135 lan aurkeztu dituzte guztira, eta epaimahaiko kideek idatzien originaltasuna eta landutako gaien indarra nabarmendu dute. 1991tik, sari honen helburua idazle gazteak literaturara erakartzea da. Besteak beste, Arkaitz Estiballesek, Uxue

Alberdik eta Nerea Ibarzabalek irabazi dute aurretik.

Espero zenuen saria irabaztea?

Egia esan, ez. Ipuina idatzita nuen, lanagaz gustura nengoen eta bidaltzea erabaki nuen. Gaia nahiko intimoa da. Uste nuen ez zela edonor erakartzeko modukoa, eta jendea ez zela identifikatuta sentituko. Irabazteko aukera gutxi ikusten nituen.

Zer kontatzen du 'Kresal haizea' narrazioak?

Neska baten bizitzako lehenengo 20 urteak kontatzen ditu. Bost urteko tartetean egiten du salto istorioak, eta urte horietan bere identitatearen parte bat nola bizi duen kontatzen du. Neskak gustatzen zaizkio, baina hasieran ez daki hori, txikia delako. Horretaz konturatuta, hasieran ez du onartuko, baina gero bai.

Ez da irabazten duzun lehenengo literatur saria.

Idazteko grina aspalditik datorkit. Betidanik gustatu izan zait bizitako gauzak idaztea. Baita pentsamenduak eta fikzioa ere.

Ze gai dituzu gustukoen idazterakoan?

Askotan, bizipenek sentiarazten didatena. Esploratzea gustatzen zait, beste pertsonen sentimenduetan, nireetan arakatzea. Horrez gainera,

gai sozialak lantzea ere gustatzen zait: injustiziak eta zapalkuntzak.

Baduzu erreferentziarik?

Esango nuke Virginia Woolfek erabiltzen dituen barne bakarrizketak eragina dutela nire idatzietan. Pertsonaien sentimendu eta pentsamenduei ematen diet garrantzia. Batzuetan, ekintzei baino gehiago.

Emakumezkoek irabazi dituzue Azkue Sariak gehienak.

Nire adinean, bereziki neskak daukagu literaturarako joera nabarmena. Agian, hori barneratuko genuen. Inposatutako rol horren

“

Neskak joera handiagoa dugu sentimenduak adierazteko, eta idazteak badu horregaz zerikusia”

barruan, horretarako joera dugu. Guk joera gehiago dugu gure sentimenduak adierazteko orduan, eta askotan idazteak badu horregaz zerikusia.

Baduzu beste narrazio lanik esku artean?

Bertso eskolan hasi berri naiz, eta, momentuz, bertsoak eta poesia sortzen nabil gehienbat. Orain ez daukat denbora askorik, baina badituztenbait ideia narrazioak egiteko. Udan horiei ekiteko asmoa daukat.

Euskaraz idatzi izan duzu beti?

Egia esan, ez. Azken urteetan hasi naiz euskaraz idazten eta oso erosoa sentitzen naiz. Bolada batean, ingelesez idazteko joera handia nuen. Erraztasun handia daukat eta zenbait gaitan errazagoa egiten zitzaidan.

Hautu bat da euskaraz idaztea?

Hemendik aurrera, euskaraz idazteko asmoa dut. Euskal idazleok gure hizkuntzan idaztea zor diogu euskarari.

Mariano Estudillok 'Se Busca' antzezlanataularatuko du San Agustin kulturgunean

ANTZERKIA • A.M.

Madriilen estreinu arrakastatsua eduki ostean, Mariano Estudillo durangarrak Tabula Rasaren azken proiektua ekarriko du Durangora. Hain zuzen ere, zapatuan eta domekan Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko dute *Se Busca*, Estudillo bera eta Itxaso Larrinaga aktore bilbotarra protagonista dituen antzezlan.

Se Busca Homeroren *La Odisea*ren berrirakurketa bat da. Bertan, bideak helmugak besteko

Maiatzaren 4an eta 5ean izango dira emanaldiak, 19:00etan eta 20:00etan, hurrenez hurren

garrantzia duela erakutsiko dute. "Inork baino urrutiago bidaiatu gura dugu falta zaiguna aurkitzeko, baina ez gara gai garrantzitsuena gure barne-bidaia dela ikusteko". Testuak Calderonenak eta Maria Cresporenak dira. Mar-

Markel Ganboa durangarra arduratu da antzezlanaren ekoizpen arloaz

kel Ganboa durangarrak ere parte hartu du antzezlanean, ekoizpenaz arduratuta. Maiatzaren 4an eta 5ean dira emanaldiak, 20:00etan eta 19:00etan, hurrenez hurren.



Mariano Estudillo.



Ostalaritza

gida

anboto

Durango



PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunerokoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.

Durango



KOBICA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

Iurreta



GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Domeketan eta
jaiegunetan rabak.

Durango



URRATS
Juan Antonio Abasolo kalea,3 - DURANGO
Tel.: 946 812 518
Gosariak, bokatak eta pintxoak. Bariku
eta zapatu gauetan hanburbesak. Zapatu
eta domeketan babarrunak enkarguz.

Durango



GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384
Plater konbinatuak, hanburbesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.

Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetak
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Durango




MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alai.

Durango



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.



Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!



Musika, bertsoak, dantza eta txalapartaren ttakuna 'Tibur' gogoratzeko

Ibon Urizar 'Tibur' omendu zuten Zaldibarren, maiatzaren 1ean; egun osoko egitaraua prestatu zuten agur moduan

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Bizi zenean bezala, lagun eta musika artean gogoratu dute Ibon Urizar 'Tibur' zaldibartarra, maiatzaren 1ean. Hain zuzen ere, 43 urte beteko lituzkeen egunean. Udaletxe plazako ekitaldia lagun eta kidez bete zen. Durangaldeko beste herrietako lagunak ere joan ziren Zaldibarrera 'Tibur'-i azken agurra emateko asmoz. Urizar joan den azaroan hil zen, gaixotasun baten ondorioz.

"Bisera buruan eta ezker besoa altxata" gogoratuko dutela adierazi zuten lagunek

Txalapartaren ttakunagaz hasi zen ekitaldia. Ezaguna da Urizarrek txalapartarekiko zuen afizioa, besteak beste. Egur oholez gainera, taula gainean bere baxua, hainbat lore-sorta, eta 'Tibur'-en irudia zeuden —dantzariak txapela jarri zioten dantzan egin ostean—, lagunek gogoratuko duten tankeran: "Bisera buruan eta ezker besoa altxata". Gari-koitx Sarriugartek hunkiturik egin zuen bertsoan gero: "Negar malkoa jausi ezker, ez txartzat hartu", kantatu zuen. Musika ere pisu handia izan zuen ekitaldian. Horrela, taldekide izandakoak ere igo ziren oholtzara, *Xalbadorren Heriotzean* abestera, adibidez. Musikarien artean, Gari abeslari

ezaguna igo zen, eta abesti pare bat eskaini zizkion Urizarri. Gai-nontzekoek bezala, esker oneko berbak baino ez zituen eduki Urizarrentzat: "Zaldibarren bizi nintzenean babes handia eman zidan, izan ere, ni ez nengoen ondo". Orainsu hil den Txetxu Madariaga zaldibartarra ere gogoan eduki zuen. Ostean, dantza egin zuten, eta plazako ekitaldiaren amaieran lore-sorta bat eman zieten senideei. Olazar ingurura kalejiran joan, eta han aretx bat landatu zuten.

Sorreratik Gari Rocken

Musika ere pasio izan zuen beti Urizarrek, eta horregatik egin zituzten zuzenekoak ekitaldian. Gari Rock elkartetik azpimarratu gura izan dute Urizarrek hasieratik eta "azken unera arte" izan zuela eurekin hartu-ema-

Disorders, Ostias Mil, Worth It, Roy Veloces eta Street Girls taldeek kontzertua eskaini zuten

na. Hainbat taldetan jardun zen gazte zaldibartarra, Disorders eta Ostias Mil taldeetan besteak beste. Omenaldia borobiltzeko, kontzertu sorta eskaini zuten Zaldibarko gaztetxean. Disorders eta Ostias Mil taldeak aritu ziren, eta eurekin batera Worth It, Roy Veloces eta Street Girls taldeek ere jo zuten lagunaren omenez.



Musikari ugari igo zen taula gainera.



Aretx bat landatu zuten Olazar inguruko parkean.



Lore eskaintza.

Gai librea

Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria



Kimerak

Presaka idatzi ditut lerro hauek harira ez datozen zenbait kontuengatik eta, orain, filosofiaz hartzea erabaki dudana arren, presiopean distantzia hartzea kimerak bat da niretzat.

Izan ere, beti larrituta nabilela konturatu naiz. Bidaia arrotz hau erlojuaren kontrako lasterketa basati bat bilakatzen da gehienetan, aisialdia ere betebeharrak hutsala bihurtzeko gaitasuna duena. B.C. Han filosofoak dienez, gaur egun ezagueraz autoesplotatu egiten gara pertsona moduan garatzen ari garela pentsatzen dugun bitartean. Bizirauteko, gure denboraz desjabetzera behartuta gaude, beti ere alferrikako kontsumo aktibitateetan xahutzeko.

Hile hauetan, gainera, gure garunak pairatzen duen hipe-restimulazioak bidelagun definitiboa aurkitu du: hauteskunde zirkulu mediaticoa. Talent eta reality show-en arteko hibrido honek gero eta antz handiago du supermerkatu batekin. Erdigunea instituzioan eta bere ustezko handitasunean kokatzen da, herritarra periferiara bultzatuz. Gutxiengo batek bere produktu berria eskaini, eta gehiengoak lau urterako lokartze prozesua zelakoa izango den erabaki behar izaten dugu.

Horregatik, lerro xume hauek nire herrian formula instituzionala hartzen ez duen mugimendu poliedrikoari eskerrak emateko erabili nahi ditut: Durangok Planto barruko plataformei, Sorginola Gaztetxeari, Geu Be elkarteari eta espazioagatik kabitzen ez diren beste guztiei, mila esker. Bozkatzea ezinbestekoa da, baina are gehiago instituzioarekin tentsio eta kritika etengabea mantentzea. Gora herria!

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#kontzertua

KARANA 411

Maiatzaren 9an,
osteguna,
18:30ean



Afroamerikar jatorriko doinuak gertuko zuzenekoan



ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com - 692 859 779

Zubiaurre, 8 **IURRETA** - 946 202 768

Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791



Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia

**NUKLEO**
ileapaindegia

946 582 996

Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



I U N I K
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491



Belardenda eta dietetika

OSASYN – ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA
40 urte baino gehiagoko esperientzia

OSASUNA
ONGIZATEA
COACHING NUTRIZIONALA
SENDABELARRAK

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

Ermodo kalea,13 (Madalena galeriak) - DURANGO
Tel.:688 730 694-osasunetxea@hotmail.com
Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia



Salón de belleza
M^{ra} Jesús Luque
UNISEX ILE-APAINDEGIA

Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO
946 81 43 89

Osasun Etxea
Ana Aranzabal

NOVALINE metodoa Osasun Etxean dugu aspalditik eta **MARIA RECIO** da gure dietista.

OSASUN ETXEA | Batzuetan ez da erraza pisu egokia lortzea. Gainera, dieta asko probatu eta emaitza onik lortzen ez badugu, baliteke burumakur egotea, eta, horren ondorioz, pisu egokia inoiz lortuko ez dugula pentsatzea. Pentsamolde hori aldatzeko, Novaline Metodoa da eraginkorrena, eta Maria horretaz hitz egiteko pertsonarik egokiena, 20 urte baitaramatza nutrizionista moduan Novaline taldean.

Novaline Metodoa Novadiet-en metodoa da pisua kontrolatzeko. Nutrizioaren alorrean profesionalen talde zabala du, eta aditu talde ezin hobea Coaching Nutrizionalean. Metodo honi esker, zure helburuak lortzen lagunduko dizugu. Zure osasuna zainduko dugu eta etengabe motibatuko zaitugu hori lortzeko. Ez dugu soilik aldaketa fisikoa bilatzen, barrutik kanpora doan aldaketa baizik. Jateko

ohituretan aldaketak eginez, modu osasuntsuan jaten ikasi daiteke eta pisua denbora luzez mantendu daiteke.

Novaline Metodoa nutrizio-plan batean oinarritzen da batez ere, orekatua eta pertsona bakoitzari egokitua dena. Ez dago janaria pisatu beharrik eta oso eramangarria da. Gantza murrizten laguntzen duten osagarri nutrizional batzuekin batera, gure helburua lortzen lagunduko digu. Gainera, coaching nutrizionalari esker, pisua galtzeko prozesuan ager daitezkeen arazoan aurrean irtenbiderik onenak aurkitzen lagunduko dizugu. “EZ HASI EGUNEN BATEAN AMAITUKO DEN DIETA BAT. HASI BETIKO IRAUNGO DUEN BIZITZA ESTILO BAT”





Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Amildegiairen ertzean dago Durangoko Kulturala; derrigor irabazi behar du bihar, eta Real Unionen hutsa itxaron

Bihar Leioa taldea hartuko du Tabiran, eta baliteke garaipena nahikoa ez izatea; Irungo taldeak irabazten badu, Hirugarren Mailara jaitsiko da Kulturala

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Hiru jardunaldi falta dira Bigarren B Mailako liga amaitzeko, eta Durangoko Kulturalak ia ezinezko du mailari eustea. Sailkapeneko azkeneko tokian, geratzen den gutxia irabazi eta beste emaitzen zain egon behar du.

Lehenengo finala zapatu honetan jokatu du, 17:30ean. Leioa taldea dator Tabirara. Leioak talde ona du eta zazpigarren dago, baina ez du ezer jokoan. Egoera hori ez da berriro gertatuko. Hurrengo aurkari biek, seguruenik, asko izango dute jokoan: Gernikak mailari eustea, eta Oviedok igoera fasea.

Real Union jaitsierako promozio postuan dago. Bere azpitik dauden gehienek esperantza bakarria da. Ez dago hori baino gorago joaterik dagoeneko. Kulturalak zortzi puntura du postu hori. Beraz, Real Unionek asko jota puntu bat bakarrik batzea behar du Kulturalak, bien artean durangarrek gol alde hobea dutela kontuan hartuta. Joanekoan husna berdindu zuten eta itzulikoan Kulturalak 0-2 irabazi zuen han.



Bederatzi puntu geratzen dira jokoan, eta Kulturalak zortzi puntura du salbazioa. Luis Iturriz.

Biharko jardunaldiak berezitasun bat izango du. Real Unionen eta Vitoriaren arteko partidua 16:00etan hasiko da, Tabirako baina ordu eta erdi lehenago. Beraz, Durangon zelairatzen direnerako Irungo partidua azken txanpan egongo da. Beste kontu bat da Kul-

turaleko jokalariek emaitza zein den jakin gurako duten eta emaitza jakinda zelairatzea komeni den.

Piztualdia eta kolpea

Kulturalak piztualdi itxaropentsua izan zuen otsailean eta martxoan. Bost jardunalditan lau garaipen

pilatu zituen Langreori (1-0), Xixongo Sporting B-ri (1-2), Real Unioni (0-2) eta Athletic B-ri (3-2) irabazita. Ematen zuen miraria egia bihurtzeko kapaz izango zirela, baina Tudelanoren kontrako porrotak (1-0) amaiera jarri zion joera on horri. Hurrengo, partidu zoro batean,

launa berdindu zuen Torrelavegako Gimnastika taldearen aurka, eta joan zen asteburuko derbiko porrota oso mingarria izan zen. Amorebietaren kontra 3-0 galdu zuten.

Amorebieatren kontrako porrot mingarriak Kulturalaren aukerak asko murriztu zituen

Lehenengo zatian gehiago izan zen Kulturala, baina Amorebietak gol bi sartu zituen. Bigarren zatian Amorebietak ez zion aukerarik eman.

Amorebieta, salbatuta

Denboraldiko zati luze batean, Amorebieta futbol kluba ere larri ibili zen. Baina, Kulturalak ez bezala, erreakzio iraunkorra izan zuen eta erregulartasun horrek salbaziora eraman du. Geratzen diren hiru partiduetan ez du ezer jokoan. Lasaitasun horregaz liga ahalik eta txukunen amaitzen saiatuko dira.

Asier Aspuru pilotariak uko egin dio Espainiako selekzioagaz jokatzeari

“Euskal Herria ordezkaturata jokatu nuke bakarrik”, adierazi du abadiñarrak. Erabaki berdina hartu dute Ekhi Ziarrusta eta Inhar Ugarte trinketean dabilzan pilotariek ere.



Aspuruk GRAVNI Torneoko finala jokatu du asteburu honetan trinketean.

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Aurtengo urrian Munduko Pilota Kopa jokatu da. Hitzordu horri begira, Espainiako selekzioagaz entrenatzera deitu dituzte Asier Aspuru, Ekhi Ziarrusta eta Inhar Ugarte pilotariak. Hirurek ezet esan diote Alfonso Sanz Espainiako trinkete arloko hautatzailearen eskaintzari. “Espainiako selekzioak ez nau ordezkutzen. Soilik Euskal Herria ordezkaturata jokatu nuke”, adierazi du Aspuruk.

Euskal kirolariak Espainiako selekzioagaz joatea Euskal Herri-

Selekzioari uko egitea gaia "sozializatzeko" modu bat dela uste du pilotari abadiñarrak

ko selekzioaren ofizialtasun eza “normalizatzea” dela iruditzen zaio pilotari abadiñarrari. Uko egitea, oster, gaia “sozializatzeko” ez ezik “ofizialtasunaren aldeko kontzientzia sortzeko” modu bat dela uste du.



Enrike Gallastegi —lehen planoan, eskuman, txaketa eskuan— beteranoen taldeagaz.

Enrike Gallastegi gogoratuz, errugbi partidua Elorrioren

Elorrio Rugby Taldeko presidente eta jokalaria izana iaz hil zen; beteranoek partidu bat jokatu dute bere omenez

ERRUGBIA • J.D.

Elorrio Rugby Taldeak antolatuta, Enrike Gallastegi gogoratuko duen beteranoen partidua jokatu dute zapatuan. Iazko abenduan hil zen Gallastegi, 55 urte zituela. Elorrioko Rugby Taldeko jokalaria izan zen lehenengo, eta presidente ostean. Emakumeen errugbia sustatzeko ere lan egin zuen.

Ekitaldia Elorrioko errugbi zelaian izango da, 11:00etan. Gallastegiren senitartekoek oheretako sakea egingo dute. Errugbi zelaiaren inguruan Gallastegiren omenezko zuhaitz bat ere landatuko dute. Azkenik, Elorrioko taldean aritutako makina bat beteranok errugbi partidua jokatu dute.

Iurretako eta Urduliz lehia ikusgarria mantentzen ari dira Hirugarren Mailara zuzenean igotzeko borrokan

Urdulizek hiru puntuko aldea du azken txanpan; lurretakok garaipena behar du asteburuan presioa sartzen jarraitzeko



Zapatuan Dinamo San Juan taldearen kontra jokatu du lurretakok etxean.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Ohorezko Mailako goialdea gori-gori dago lurretakori eta Urdulizi esker. Lehia ikusgarria mantentzen ari dira denboraldi osoan zehar, oraintxe bata lider eta hurrengoan bestea. Orain Urduliz dago goitik, hiru puntuko aldeagaz. Bietako batek ere ez du amore ematen eta ez

lurretakok 12 partidu daramatza galdu barik; orain hilabete Urdulizi irabazi zion, kanpoan

da gutxiagorako, lehen sailkatuak eramango baitu sari potoloa: zuzenean igoko da Hirugarren Mailara.

Bigarren geratzen denak, ostera, igoera fasea jokatu beharko du. Iaz horixe gertatu zitzaion lurretakori, eta, azkenean, ezin izan zuen igo. Aurten eginahalak egiten ari da igoera fasea saihesteko, eta hamabi jardunaldi daramatza galdu barik. Orain hilabete, Urdulizi irabazi zion, etxetik kanpora.

Lau jardunaldi falta dira liga amaitzeko. Urdulizek Ondarroako Aurrera eta Getxo taldeen kontra jokatu behar du oraindik; hirugarren eta laugarren sailkatuak dira, hurrenez hurren. Iurretakok Aurreraren kontra amaituko du liga. Gainerako taldeak sailkapenaren behealdean dabilta. Esaterako, zapatuan, 17:00etan, jokoa ezer ez duen Dinamo San Juan hartuko du etxean. Irabazi beharreko partidua da, presioa sartzen jarraitzeko.

Adituaren txokoa

Eneritz Iturriaga
Mazaga
Txirrindularitza



Eneicat, ametsa errealtate

Txikiak garenean milaka amets izaten ditugu, baina denbora pasatu ahala, amets horiek itzaltzen joaten dira, bai errealtate gordina ezagutzen hasten garelako, bai jende askok zoro moduan ikusten zaituelako, bai amets horiek gauzatzeko inork lanik egin nahi ez duelako.

Nire ustez, ametsak egia bihurtu daitezten, eurretan pentsatu bakarrik ez, lan asko egin beharra dago. Momentu txarrak datozenean eta dena pikutara joateko arriskua dagoenean, aldiz, oraindino lan gehiago egin behar da, eta amets finko hori oraindik eta gehiago desiatu. Horixe da Eneicat Women Cycling Team txirrindulari ekipoarekin egin duguna. Bihotzez egindako nire nesken talde berri eta desberdin bat da. Neska guztiak Leongo egoitza batean bizi dira, bekak dituzte ikasketak egiteko, eta txirrindularitza amaitu ostean lan munduan sartzeko abantailak dituzte. Lasterketei dagokienez, nazioarteko egutegia dugu eta 15 egun barru Emakumeen Biragaz jo eta su arituko gara. Batez ere, nik nire txirrindulari sasoian sumatu nituen gabeziak hobetzen aritu naiz.

Lan horrek guztiak lehenengo garaipenak ekarri dizkigu. Eneicat (Eneritz Iturriaga eta Dario Cataldo lagunaren izenetatik eta Astanan du sorburua) taldeko neskak denen ahotan daude. Eta, gainera, helburu garrantzitsuen falta da oraindik: Eneicat euskaldun bihurtzea eta munduko 10 talderik onenen artean sartzea. Hori da nire hurrengo ametsa, eta horretarako arituko naiz lanean.

Beraz, jakizue orain Eneicat dena Euskadi Women bat bihurtu nahi dudala eta, horretarako, denen laguntza beharko dudala! Nahia, ametsa, ilusioa eta lan gogorra datozkit aurrerantzean.

Asteko kirolaria

“Ondo egon izan banintz, aurreragoko postuetan egoteko aukera izango nuen”

Pontevedran (Galizia) jokaturako Munduko Duatloi Txapelketan 10. geratu da Loizate

Ondoezik sentitu zen Irene Loizate joan zen apirilaren 27an izandako Munduko Duatloi Txapelketan. Ez zen gustura sentitu lasterketaz, baina 10. postuan geratzea lortu zuen. Duatloilarien munduko sailkapen nagusian 14 postu irabazi ditu eta 13. tokian kokatu da. Ekainean, Europako Txapelketan parte hartu gura du.

Pozik zaude Munduko Duatloi Txapelketan egindako lanagaz?

Ez nintzen gustura gelditu egindako lasterketaz. Astebate lehenago gaixotu egin nintzen, gripe apur batez egon nintzen, eta lasterketa egunerako osatuta egongo nintzela pentsatu nuen arren,

egunean bertan sukarra izan nuen eta ez nintzen ondo ibili. Hala ere, hamargarren postuan gelditzea lortu zenuen.

Munduko txapelketa izanda postu nahiko ona lortu dut, bai. Baina erritmoak ikusita, entrenamenduetan egindako lana kontuan hartuta, ondo egon izan banintz aurreragoko postuetan egoteko aukera izango nuela uste dut.

Non sentitu zara hobeto, bizikletan ala korrika?

Lasterketa honetan, denean sentitu naiz txarto. Korrikako tartean indarrik barik sentitu nintzen eta, horren ostean, eustea eta lasterketa amaitzea zen kontua. Ez nuela ezer egiterik ikusi nuen.

Bizkaia-Durango txirrindularitza taldean, 23 urteko batez bestekora heltzen ez den gazte taldeagaz hasi berri zara martxoan. Horrek lagundu dizu bizikletako errendimendua hobetzen?

Bai. Txirrindulari talde batean egoteak entrenatzera motibatzen zaitu. Gainera, eurekin ibilitako lasterketetan ikasi egiten da eta horrek ere asko laguntzen du.

Munduko Txapelketaren ostean, zein duzu hurrengo erronka?

Inguruko lasterketetan ibiliko naiz maiatzean; dauden bizikleta probetan ere bai. Bestalde, ekainaren 30ean Europako Duatloi Txapelketa jokatu da eta parte hartuko dudala uste dut. Hasiera



IRENE LOIZATE SARRIONANDIA

Durango, duatloia

batean ez nuen asmorik, baina Munduko Txapelketa txarto joan dela ikusita, Europako Txapelketan parte hartuko dudala uste dut. Horren ostean, ikasketetan zentratuko naiz.

Munduko Duatloi Txapelketak utzitako arantza kentzen lagunduko dizu Europakoak?

Hori espero dut. Munduko Txapelketan lehenengo postuetan geratu zirenek Europako Txapelketan ere parte hartuko dute. Beraz, maila berdina egongo da.



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO • TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA • TEL.: 946 308 722

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrion. 50 metro karratu. Igogailu-arekin. Tel.: 631-12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Hiru emakume arduratsu gara eta gelak alokagai edota San Fauston edo Durango etxe baten bila gabiltza. Deitu: 644930679

Zaldibar. Zaldibarren herri erdi-gunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Elorrio. Elorrioko bikote arduratsu

bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrion bertan). Tel.: 688640604

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646-35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612-53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 632-35 60 66

IRAKASKUNTZA

LAN ESKAINTZAK

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonarengana egokitze gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan lan egiteko prest nago, adineko

pertsonak edo umeak zaintzen edota etxeko lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsapez kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644930679

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko, etxeko

garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644558390

Barneko langilea lan bila.

Emakume arduratsua lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak zaintzen edo haurren zaintzan lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala hasteko moduan: Tel.: 632705225

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 643727198 telefono zenbakira.



MARIASUN QUIÑONES
ASTE HONETAN
ANA URRUTIA


DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttop
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



Botikak

BARIKUA, 3 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 4 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 5 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 6 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 7 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 8 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 9 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Mara!** Apirilaren 30ean urte bat bete dozu. Milesker, polittori gure egunak alaitzearren! Aitatxo eta amatxon partez.



Zorionak, **Garazi** eta **Naiare!** Gure etxeko txikiak handitzen ari dira eta domekan, hilak 5, 9 urte beteko dabez. Muxu handi bana eta ondo pasau.



Zorionak, **Maialen** 13. urtebetetzean etxeko guztion partez.



Iratik apirilaren 26an 11 urte bete zituen. Zorionak aita, ama, aitite, amama, Endika eta beste senideen partez.



Zorionak, **Izei!** Handitzen-handitzen... zabizen 4 urteko mutille honezkero. Mosu handi eta potoloak maite zaitugun guztion partez. Muak!



Zorionak, **Lur!** Martitzenien, maiatzak 7, 6 urte handi beteko dozuz. Egun eder bat pasatzia opa deutsugu! Mosu handi bat etxeko danon partez



Zorionak gure **Luken** zure lehenengo urtebetetzean Elorrixoko aitxitxa, amama eta Eneritzen partez.



Zorionak **Txiki** zure seme alabaren partez. Ondo pasau zure egune.

GOZATEGIA

OKINDEGIA

GOZATU

GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 15° / 8° ☁️

DOMEKA 🌡️ 14° / 6° ☀️

ASTELEHENA 🌡️ 17° / 4° ☀️

MARTITZENA 🌡️ 24° / 6° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 16° / 11° ☁️

EGUENA 🌡️ 22° / 10° ☁️

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriz, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

uxarte

SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAZ ENKARGUZ

Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

“Dantza eginez plazak betetzea, gure kultura zaintzea eta honen alde egitea oso polita da”

San Prudentzio jaietako lehen egunean, Traña-Matienako jai batzordeak Iluntze Dantza Taldea saritu du, 37 urtez egindako lanarengatik. Bihar, maiatzaren 4an, urtero egiten duten dantza saioa egingo dute dantza taldekoek

Itxaso Urkia Albizuri (Abadiño, 1991) eta **Aimar Perez Zallo** (Abadiño, 1976) • Iluntze dantza taldeko kideak

AKUILUA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iluntze dantza taldeko kideek ezus-tean jaso zuten Traña-Matienako jai batzordeak urtero ematen duen saria. 37 urtez euskal kulturaren, herriaren eta euskararen alde egindako lanarengatik saritu dute Iluntze. Bihar jaietako urteroko saioa egingo du dantza taldeak.

Saria sorpresaz hartu zenuten ala bazenuten zerbaiten susmoa?

Aimar Perez: Sorpresa erabatekoa izan zen, itzela. Urtero egiten dugu dantza Donien Atxa altxatuurretik, eta umeez egin beharreko dantzak prestatzen genbiltzala, sarituak geu ginela entzun genuen.

Itxaso Urkia: Dantza taldeko batzuk elkarrengatik egon ginen jaien hasierako ekitaldia ikusten, eta aurreneko saria jaietan parte hartzen duen eta gure kultura bultzatzen duen talde batentzat izango zela esan zutenean, izerditan hasi ginen. Oso polita izan zen.

San Prudentzio jaietan eta herritarren aurrean sari hau jasotzeak zer suposatzen du Iluntzerentzat?

A.P.: Ilusio handia, Donien Atxaren egunean herritarren aurrean erre-konozimendu bat egin digute eta.

I.U.: Urte askotan egindako lana saritu dute, eta horrek lanean jarraitzeko gogoia ematen dizu.

Taldeko gaztetxoek Agurra dantzatu zizueten taldeko arduradunei.

I.U.: Umetxotatik dabilta gugaz, eta Agurra dantzatu zigutenean ilea tente jarri ziguten.

1982an sortu zen dantza taldea, Traña-Matienan. Nola dago taldea?

A.P.: Mutilen taldea eskastxo dau-

kagu, justu-justu egiten dugu zortziko taldea. Hori dela eta, beste talde batzuetan egin duten lez, neskei Dantzari dantza erakustekotan gabilta.

I.U.: Nesken kasuan, oraingoz ez daukagu arazo hori. Hala ere, garrantzitsua da dantzari gazteak etortzea. Horregatik, gure taldera batzeko deia egiten diegu herriko

kultura eta euskara bultzatzea da, besteak beste. Horregatik, hainbat ekintza antolatu eta beste hainbatetan parte hartzen dugu. Esaterako, Umeen Dantzari Eguna antolatzen dugu eta herriko jaietan parte hartzen dugu. Euskararen alde korrika ere egiten dugu.

Berba bitan

• **Dantza egiteko plaza bat?**

Biak: Kioskoko plaza.

• **Dantza bat?**

I.U.: Gorulariak, arkuak.

A.P.: Agintariena

• **Jaietako egun bat?**

A.P.: Iluntzegaz dantza egiten irteten garen eguna.

I.U.: Eta txosnaguneko txupinazoa.

• **Jaietan, eguna ala gaua?**

I.U.: Eguna eta gaua. (barrez)

A.P.: Adinagaz gehiago eguna, baina ahal dugun bitartean, biak.

gazteei, mutilei batez ere. Dantza eginez plazak betetzea, gure kultura zaintzea eta honen alde egitea oso polita da.

Kulturaren, euskararen eta herriaren alde lan handia egiten duen taldea zarete.

A.P.: Iluntzeren helburua euskal



Lau-hortza

Alina Ahtamon Medikua



Eutanasia

Orain dela aste batzuk heriotzari buruzko artikulu bat idatzi nuen. Gaur, eutanasiari buruzko telebista programa bat ari naiz ikusten Txilen, eta uneoro Espainia aipatzen ari dira. Ramon Sampredo, 25 urtean zehar heriotza duina lortzeko borrokatu zen gaixoa tetraplegikoa, eta *Mar adentro* film famatua izan dute ahotan. Kasu honek, 47 urteko emakume batek duintasunez hiltzea eskatzen dio hemengo gobernuari. Txilen, Espainian bezala, oraindik ez dago alor hau erabat arautzen duen legerik.

Medikua naizen aldetik eta inoren gaixotasuna, mina zein heriotza gertu-ger-

Zenbait kasutan eutanasia aplikagarria dela deritzot: gaixoa duintasunik gabeko bizitzari amaiera eman nahi dienean, adibidez.

tutik bizi ditudan aldetik, zenbait kasutan eutanasia aplikagarria dela deritzot: gaixoa bere sufrimenduari eta duintasunik gabeko bizitzari amaiera eman nahi dienean, adibidez. Gaixoa bere erabakiak hartzeko gaitasuna badu, eta medikuntzaren aldetik ezin bada beste ezertxo ere egin, pertsona guztiok ba al daukagu ala ez daukagu geure bizitzari buruzko erabakiak libreki eta indibidualki hartzeko eskubidea?

maristak
Ikastetxea - Durango
946810058
www.maristak.com

etorkizun oso bat

946810058
www.maristak.com

Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarriko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza

ATE IREKIAK
Maiatzak 8
18.00-20.00

Aurrematrikula
Batxilergoa
Maiatzaren 2tik 14ra
Lanbide Heziketa
Ekainaren 3tik 14era